

2023KO OTSAILAREN 7AN EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera mota: Udal Osoko Bilkura Berezia

Data: 2023-02-07

Ordua: Arratsaldeko 20:00etan

Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Honen bitartez eta alkatearen aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

EGUNEKO GAI ZERRENDIA:

LEHENENGOA: 2023. URTEKO UDALAREN AURREKONTUA, LANTALDE ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ERLAZIOA HASIERA BATEZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.

BIGARRENA: LANGILE PUBLIKO IZATEKO HAUTAPEN PROZESUETAN BITARTEKO ELEKTRONIKOEN BIDEZ HARREMANAK IZATEKO BETEBEHARRA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

HIRUGARRENA: 2023RAKO LANGILEEN ORDAINSARI-IGOERA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

LAUGARRENA: EUSKARAREN AURKAKO ERASO JUDIZIALAREN AURREAN EH BILDUREN MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Elduain, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deiari, 2023ko urtarrilaren 7an, arratsaldeko 20:00tan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Oihana Amundarain Zubillaga Alkatearen presidentziapean.

Zinegotziak:

- Joel Wepsiec Mariezcurrena (20:00)
- Alain Barandarain Ayerza (20:00)

Ez da batzarreratu:

- Leire Talavera Etxeberria

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari - kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidenteak, 20:00 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.

GAI ZERRENDA:

LEHENENGO PUNTUA:

2023. URTEKO UDALAREN AURREKONTUA, LANTALDE ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ERLAZIOA HASIERA BATEZ ONARTZEKO PROPOSAMENA

2023 ekitaldirako Udal Aurrekontuaren proiektuak honako kapitulukozko laburpena azaltzen du:

SARERRAK	2023 AURREKONTUA
I. ZUZENEKO ZERGAK	115.000,00
II. ZEHARKAKO ZERGAK	25.000,00
III. TASAK ETA BESTELAK SARRERAK	23.130,00
IV. TRASFERENTZI ARRUNAK	346.474,92
V. ONDAREZKO SARRERAK	0,00
VI. INBERTSIO ERREALAK INORENGANATZEA	0,00
VII. KAPITAL TRASFERENTZIAK	0,00
VIII . AKTIB FINANTZARIOAK	0,00
IX. PASIBO FINANTZARIOAK	0,00
GUZTIRA	509.604,92
GASTUAK	2023 AURREKONTUA
I. PERTSONAL GASTUAK	224.839,73
II. ONDARE ARRUNT ETA ZERBITZU	111.094,10
III. MAILEGU AMORTIZAZIOA	150,00
IV. TRASFERENTZI ARRUNTAK	41.600,58
VI. INBERTSIO ERREALAK	130.370,51
VII. FINANTZA AKTIBOAK	1.550,00
VIII . MAILEGU INTERESAK	0,00
IX. PASIBO FINANTZARIOAK	0,00
GUZTIRA	509.604,92

Aurrekontuan derrigorrezko gastuei aurre egiteko behar diren kredituak jarri behar dira. Hauek dira, besteak beste, derrigorrezko gastuak: zor exigigarriak, zentsuak, pentsioak, finantza kargak; beharrezko izaera duten zerbitzu emateen gastuak, langileenak, bulego material eta dependenzienak; entitateari egotzitako zerbitzuak ordaintzeko zuzenduriko gastuak, aurrez zehaztutako hitzarmen eta konpromisoetatik datozen gastuak nahiz behar eta presa nabarmena duten obrak eta instalazioak egitetik datozen gastuak.

Idazkari-kontu-hartzaileak beharrezkoa den txosten ekonomiko-finantzarioa egin du.

Eta besterik gabe bozketa egin da.

Eta gertatutako emaitzaren arabera, **ERABAKI DA:**

LEHENA: Aurkeztu den eta jasota geratu den kapitulukoko laburpena duen 2023. ekitaldiko udal Aurrekontuaren proiektua, Udal Plantilla Organikoa eta Lanpostuen zerrenda hasierako izaeraz onartzea. (I.ERANSKINA).

BIGARRENA: Espediente osoa erabaki honekin batera arauzko jendaurrekoan ezarriko da.

HIRUGARRENA: Jendaurreko epealdian erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin-betiko onetsiaz joko da.

Erreklamazioa egiteko gaitasuna dute: Uztailaren bosteko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikulua aipatzen dituenak.

Aurkezteko tokia: udalaren sarrera errejistroan.

Nori zuzendu erreklamazioa: Udal Batzarra.

LAUGARRENA: Erakustaldiaren epea inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe igaroko balitz, hartutako erabakiak behin-betirako onartutzat hartuko dira. Erreklamaziorik aurkeztu gero, Udalbatzarrek ebatziko ditu.

BIGARREN PUNTUA:

LANGILE PUBLIKO IZATEKO HAUTAPEN PROZESUETAN BITARTEKO ELEKTRIKOEN BIDEZ HARREMANAK IZATEKO BETEBEHARRA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Alkateak azaldu du, egonkortze prozesuetan elektronikoki izena emateko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak prestatuko duen aplikazioa erabili ahal izateko ezinbestekoa dela araututa izatea eta hori dela eta udal ordenantza hau onartzea komeni dela.

Baliabide elektronikoak erabiltzea tresna eraginkorra da hautaketa-prozesuak kudeatzeko; izan ere, izangaiei eskaintzen zaien zerbitzua hobetu egiten da, izapide presentzialak eta joan-etorriak saihestuz, eta, aldi berean, azkartasun handiagoa ematen die, izapideen arteko denborak nabarmen murrizten baititu eta, hartara, administrazio eraginkorragoa lortzen laguntzen baitu

Horregatik, komenigarritzat jotzen da Elduaingo Udalak deitutako hautapen prozesuetan interesa duten pertsonak bitarteko elektronikoen bidez soilik erlazionatzea, eta hori gero eta ohikoagoa da.

Eta besterik gabe bozketa egin da.

Eta gertatutako emaitzaren arabera, **ERABAKI DA:**

LEHENENGOA: Elduaingo udaleko langile publiko izateko hautapen prozesuetan bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko betebeharra arautzen duena onartzea. (II.Eranskina).

BIGARRENA: Prozedurak dakartzan tramiteetarako Alkatea ahalduntzea.

HIRUGARREN PUNTUA:
2023RAKO LANGILEEN ORDAINSARI-IGOERA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Alkateak, Eudelek bidalitako proposamenaren berri eman du:

2023ko ORDAINSARIEN IGOERARI BURUZKO ZIRKULAR INFORMATIBOA

2022.12.24an, BOEn abenduaren 23ko 31/2022 Legea argitaratu da, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Lege horrek III. Tituluko I. Kapituluan arautzen ditu sektore publikoaren zerbitzura dauden langile-gastuak, eta, zehazki, 19. artikuluan, 2023ko ekitaldirako ordainsarien igoeren mugen gaiari heldu dio, eta honako hau arautu du:

“19. artikulua. Jarduera ekonomiko-aren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen gastuei dagokienez.

(...) Bi. 1. 2023. urtean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariek ezingo dute ehuneko 2,5eko igoera orokorra izan 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudene-kiko, konparazioaren bi aldietarako homogeneousotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzinasunari dagokionez.

2. Halaber, hala badagokio, igoera hauek aplikatuko dira 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei dagokienez, eta bi kasuetan 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:

a) Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) bilakaerari lotutako igoera. 2022ko KPIHaren eta 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren batura ehuneko 6tik gorakoa bada, ehuneko 0,5eko gehieneko ordainsari-igoera gehigarria aplikatuko da.

b) Ondorio horietarako, Espainiako Estatistikako Institutuak (INE) 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da.

c) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalak 2023an izan duen bilakaerari lotutako igoera. BPG nominalaren hazkundera Jaurlaritzak Aurrekontuen Lege hau egitearekin batera doan koadro makroekonomikoan kalkulaturakoa bera edo handiagoa bada, ehuneko 0,5eko ordainsari igoera osagarria aplikatuko da.

Horretarako, INEk 2023ko BPGaren aurrerapen datuak argitaratu ondoren, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da (...)

Aurrekoa ikusita, eta EUDELek aurreko ekitaldietako udaletako langileen ordainsari-igoerei dagokienez egin duen bezala, ordainsarien arloan 31/2022 Legeak izan ditzakeen interpretazioak argitze aldera, egokitzat jotzen da Euskadiko udalei honako hau adieraztea:

GOMENDIOA:

a) Ordainsarien igoera orokorra legez onartutako mugaren arabera onartzea, hau da, ehuneko 2,5 handiagoa izatea 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean.

Igoera orokor hori bi alderdian berdina izan behar da: langileen kopuruari dagokionez eta antzintasunari dagokionez. Igoera 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin izan behar da.

Hori guztia 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19-Bi-1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Aipatutako 31/2022 Lege horren 19-Bi-2 artikuluan xedatutakoari dagokionez, % 0,5eko igoera gehigarri bana aurreikusten duena, hau da, Kontsumo Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) bilakaerari eta Barne Produktu Gordinaren (BPG) 2023ko bilakaerari lotuta, Ministro Kontseiluaren Erabakian adierazitako egunetan xedatutako dutena betetzea gomendatzen da. Horretarako EUDELe horren guztiaren berri emango du.

Eta besterik gabe bozketa egin da.

Eta gertatutako emaitzaren arabera, **ERABAKI DA:**

BAKARRA:

a) Ordainsarien igoera orokorra legez onartutako mugaren arabera onartzea, hau da, ehuneko 2,5 handiagoa izatea 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean. Igoera orokor hori bi alderdian berdina izan behar da: langileen kopuruari dagokionez eta antzintasunari dagokionez. Igoera 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin izan behar da. Hori guztia 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19-Bi-1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Aipatutako 31/2022 Lege horren 19-Bi-2 artikuluan xedatutakoari dagokionez, %_0,5eko igoera gehigarri bana aurreikusten duena, hau da, Kontsumo Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) bilakaerari eta Barne Produktu Gordinaren (BPG) 2023ko bilakaerari lotuta, Ministro Kontseiluaren Erabakian adierazitako egunetan xedatutako dutena betetzea gomendatzen da. Horretarako EUDELe horren guztiaren berri emango du.

LAUGARREN PUNTUA:

EUSKARAREN AURKAKO ERASO JUDIZIALAREN AURREAN EH BILDUREN MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Alkateak adierazpenaren irakurketari ekiten dio, izanaz bere letraz letrazko edukia:

EUSKARAREN AURKAKO ERASO JUDIZIALAREN AURREAN EH BILDUREN MOZIOA

ZIOEN ADIERAZPENA

2023 urte hasi berritan EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak euskararen aurkako epai bat eman du berriz. Zehazki, Barakaldoko Udalaren erabaki bat baliogabetu dute CCOOen eskariz, eta azpikontratutako zerbitzuetan gutxieneko euskara maila eskatzearen aurka agertu dira epaileak. Erabaki dute euskara ezin dela langileentzako betekizun gisa ezarri udalerrri horretako kultur zerbitzuek arduratzeko enpresa bat kontratatzeke lehiaketan.

Hau ez da EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak emaniko tankera honetako lehen epaia. Aurrez ere, euskara sustatzeko udal administrazioen ekimenak baliogabetu izan dituzte epaitegiek, besteak beste, 2018an Lasarte-Oriako Udalaren haurrei zuzendutako ekintza kulturalak diruz laguntzeko ordenantza, 2021ean Iruneko Udalaren udaltzaingo prozesuan ezarritako hizkuntza eskakizunak, Atarrabiako Udalaren erabakia lantalde organikoko lanpostu guztietan euskara jakitea meritua izateko erabakia, 2022an Laudioko Udalaren langile baten hizkuntz eskakizunaren erabakia,...

Euskararen aurkako epaiak izan dira, eta hizkuntza-politikaren judizializazioaren baitan ulertu beharreko erabakiak. Izan ere, egun ezarrita dagoen ofizialtasunaren, eta ofizialtasunaren ondorio juridikoen irakurketa are murriztagoa egiten ari dira epaien zein jurisprudentziaren bidez. Bide honetatik, euskaldunon eskubideak are gehiago murriztu nahi dituzte ofizialtasunaren irakurketa murriztago baten bidez. Herritarrek udal zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko eskubidea dute, eta erakunde publikoei, guztiei, baita judizialei ere, eskubide horren bermatzaile izatea dagokie.

Baina epai hau ez da euskararen aurkakoa soilik: EAEko araudiaren eta udal autonomiaren aurkakoa ere bada. Batetik, 2/2016 Euskadiko Tokiko Erakundeen Legea urratzen du. Lege hark udaloi hizkuntza politikan erabakiak hartzeko eskumenak ematen dizkigu, eta legea garatzen duen 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa, oso argi uzten ditu euskara lehenesteko bideak, arrazoi askorengatik. Bada, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Tokiko Erakundeen Legeak hizkuntza politikan udalen eskumenak argi zehazten ditu, eta 2019ko dekretuak ere udalei euskara lehenesteko beharra ezartzen die, hizkuntzaren normalizazioan urratsak emateko.

Hori dela eta, hurrengoa proposatzen dugu:

MOZIOA

Elduaingo udalbatzak honako erabaki hau hartzen du:

- 1.- Gogor salatzen dugu epaitegiek abiatu duten hizkuntza-politikaren judizializazioa, eta euskararen aurka ematen ari diren epaiak, azkena EAEko Auzitegi Nagusiak Barakaldoko Udalaren aurka emandakoa.
- 2.- Euskal Herriko administrazioei, epaitegiei, eragile politiko, sindikal eta sozialei herritarren hizkuntz eskubideak bermatu ditzatela eta euskararen sustapenaren alde egin dezatela eskatzen diegu.
- 3.- Udal honek, legedia betez, ondorengo konpromisoak hartzen ditu:
 - Udal zerbitzuetan herritarrei lehen hitza euskaraz egitea bermatuko du
 - Zerbitzu publiko guztiak euskaraz eskaintzeko baldintzak izatea bermatuko du,
 - Udal funtzionamendu osoa EAE-ko bi hizkuntza ofizialeetan bermatzeko urratsak emateko plana gauzatu du.

Eta, besterik gabe, Udal Batzarrak ahobatez

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Aurkeztutako mozioa onartzea.

Besterik gabe, 20:15ean, Presidentetzak batzarra amaitutzat jo du, eta akta hau egin dut, nik, idazkari honek, gertaturiko guztia zehatz jasota. Fede ematen dut

O.E.

Alkateak,

Udaleko idazkari - kontu-hartzailea,

Oihana Amundarain Zubillaga,

Maria Pilar Garmendia Miguel



2023ko otsailaren 7ko Ezohiko Bilkura

I. ERANSKINA

2023RAKO PLANTILLA ORGANIKOA
2023KO OTSAILAREN 7AN UDALBATZAK ONARTUA

KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

<i>Lanpostuaren izena</i>	<i>Lanp. kop.</i>	<i>Taldea</i>	<i>Egoerak *</i>
Idazkari-Kontu-hartzailea Oharra: Dedikazioa %30, Berastegiko udalarekin elkartea	1	A1	J
Gizarte langilea %14,28 Berastegiko udalarekin elkartea	1	A2	H
Administrari laguntzailea	1	C2	H

* H = Hutsik J = Jabetzan

BEHIN BETIKO PERTSONAL LABORALARI ESLEITUTAKO LANPOSTUAK

<i>Izena</i>	<i>Lanp. kopurua</i>	<i>Asimilaz Taldea</i>	<i>Egoerak *</i>
Udal zerbitzu ofiziala	1	E	H
Garbitzailea	1	C	H

* H = Hutsik J = Jabetzan

PLAZAS RESERVADAS A FUNCIONARIOS DE CARRERA

<i>Denominación de la plaza</i>	<i>N.º plazas</i>	<i>Grupo</i>	<i>Situación *</i>
Secret-Inter. Observación: Dedicación 30%, plaza agrupada con Berastegi	1	A1	P
Asistenta social Observación: Dedicación 14,28%, plaza agrupada con Berastegi	1	A2	V
Auxiliar administrativo	1	C2	V

* V = Vacante P = Propiedad

PUESTOS DE TRABAJO ATRIBUIDOS A PERSONAL LABORAL

<i>Denominación</i>	<i>N.º de puestos</i>	<i>Grupo de asimilac.</i>	<i>Situación *</i>
Oficial de operario de servicios	1	E	V
Limpiadora	1	C	V

* V = Vacante P = Propiedad

2023. URTERAKO ELDUAINGO UDALEKO BEHIN BEHINEKO PERTSONAL, KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT ETA PERTSONAL LABORALENTZAT GORDETAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

Ordena zka	Izena	Lanpostu kopurua	Hornitzeko era	Lanpostuaren maila	Ordainketa osagarriak		Dedikazioa	Bulegoak	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak						Harremana (*)
					Destinu osagarriaren maila	Osagarri espezifiko (hilabetekoa)			Adskripzioa			Hizkuntza eskakizuna		Exijitutako titulazioa	
									Talde edo eskala	Azpieskala	Mota	Maila	Derrigortasun data		
1	Idazkari-kontu-hartzailea ¹	1	L	A1	25	582,97	% 30	I/K	HN	I/K	3 ^a	4	95.04.30	5	F
2	Administrari laguntzailea	1	L	C2	14	1.663,93	% 100	I/K	AO	LA		2	09.04.30	2	L
3	Gizarte langilea ²	1	L	A2	17	71,17	% 14,28	GZ	GO	AT		3	11.09.27	6	F
4	Udal zerbitzu langilea	1	L	E	12	1.429,23	% 100	OZ	AB	ZB		2	09.40.30	2	L
5	Garbitzailea	1	LO	C	11	73,09	% 27,14	OZ	AB	ZB		2	22.12.30	1	L

Oharrak: 1 Idazkari-kontu-hartzailea Berastegiko udalarekin elkartea

2 Gizarte langilea Berastegiko udalarekin elkartea

RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO DEL AYUNTAMIENTO DE ELDUAIN, DESTINADOS A PERSONAL EVENTUAL, FUNCIONARIO Y LABORAL PARA EL AÑO 2023

Nº. Orden	Denominación	Nº. Puestos	Forma de provisión	Grupo de clasificac.	Retribuciones Complementarias		Dedicación	Dependencia	Requisitos exigidos para su desempeño						Vinculo (*)
					Nivel complemento de destino	Complemento específico			Adscripción			Perfil lingüístico		Titulación exigida	
									Grupo o escala	Subesc.	Clase	Coef.	Fecha precep.		
1	Secretario-interventor ¹	1	L	A1	25	582,97	% 30	S/I	HN	S/I	3 ^a	4	30.04.95	5	F
2	Auxiliar administrativo	1	C	C2	14	1.663,93	% 100	S/I	AG	AA		2	30.04.09	2	L
3	Trabajadora social ²	1	C	A2	17	71,17	% 14,28	SS	BS	ST		3	27.09.11	6	F
4	Operario de servicios	1	C	E	12	1.429,23	% 100	OS	AE	SE		2	30.04.09	1	L
5	Limpiador/a	1	CO	C	11	73,09	% 27,14	OS	AE	SE		2	30.12.22	1	L

Nota: 1 Secretario-interventor agrupada con el ayuntamiento de Berastegi
2 Trabajadora social agrupada con el ayuntamiento de Berastegi



2023ko otsailaren 7ko Ezohiko Bilkura

<p>FORMA DE PROVISIÓN: L: Libre designación C: Concurso o concurso-oposición CO: Concurso-oposición OL: Oposición libre</p>	<p>DEPENDENCIA: A: Alcaldía S: Secretaría I: Intervención B: Biblioteca SS: Servicios sociales SC: Servicios culturales OS: Obras y servicios</p>	<p>ESCALA: HN: Habilitación nacional AG: Administración general AE: Administración especial BS: Bienestar Social</p>	<p>SUBESCALA: S/I: Secretaría-Intervención A: Subescala administrativa AA: Subescala auxiliar ST: Subescala técnica S: Subescala subalterno SE.: Servicios especiales.</p>
<p>CLASE: OP: Operario</p>	<p>TITULACIÓN EXIGIDA: 1.Certificado de Escolaridad o equivalente. 2.ESO 3.FP I o equivalente 4.Bachiller 5. Licenciado o equivalente en derecho, ciencias políticas y administrativas, sociología, dirección administrativa, economía o ciencias financieras. 6. Diplomatura en Trabajo Social o Grado en Trabajo Social. 7. Permiso de conducir BE</p>	<p>VÍNCULO: PE: Personal eventual F: Funcionario L: Laboral</p>	<p>DEPENDENCIA: S: Secretaría I: Intervención B: Biblioteca SS: Servicios sociales SC: Servicios culturales OS: Obras y servicios</p>
<p>HORNIDURA-MODUA IL: Izendapen librea L: Lehiaketa LO: Lehiaketa-oposizioa OA: Oposizio askea</p>	<p>BULEGOAK A: Alkatetza I: Idazkaritza K: Kontuhartzaitza L: Liburutegia GZ: Gizarte Zerbitzuak KZ: Kultur Zerbitzuak OZ: Obra eta Zerbitzuak</p>	<p>ESKALA HN: Estatu mailako gaitasuna AO: Administrazio orokorra AB: Administrazio berezia GO: Gizarte ongizatea</p>	<p>AZPIESKALA: I/K: Idazkari-Kontuhartzaitza AA: Administrazio azpieskala LA: Laguntzailea azpieskala. SA: Subalterno azpieskala AT: Azpieskala teknikoa ZB: Zerbitzu berezia</p>
<p>MOTA OP: Operarioa</p>	<p>EXIJITUTAKO TITULAZIOA 1. Eskola ziurtagiria edo baliokidea 2. DBH 3. LH I edo antzekoa 4. Batxilerra 5. Zuzenbidean, zientzia politika eta administrazio zientzietan, soziologian, administrazio zuzendaritzan, ekonomian edo finantza zientzietan lizentziatua edo baliokidea. 6. Gizarte Lanean Diplomatura edo Gizarte Lanean Gradua. 7. Gidatzeko baimena BE</p>	<p>HARREMANA BB: Behin behineko Pertsonala F: Funtzionarioa L: Pertsonal laborala</p>	<p>BULEGOAK: I: Idazkaritza K: Kontu-hartzaitza L: Liburutegia GZ: Gizarte zerbitzua KZ: Kultur zerbitzua OZ: Obra eta zerbitzuak</p>



2023ko otsailaren 7ko Ezohiko Bilkura

II. ERANSKINA



**UDAL ORDENANTZA, ELDUAINGO UDALEKO
LANGILE PUBLIKO IZATEKO HAUTAPEN
PROZESUETAN BITARTEKO ELEKTRIKOEN
BIDEZ HARREMANAK IZATEKO BETEBEHARRA
ARAUTZEN DUENA**

**ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA
OBLIGACION DE RELACIONARSE POR MEDIOS
ELECTRONICOS EN LOS PROCESOS
SELECTIVOS DE ACCESO A LA CONDICION DE
PERSONAL EMPLEADO PUBLICO DEL
AYUNTAMIENTO DE ELDUAIN**

Baliabide elektronikoak erabiltzea tresna eraginkorra da hautaketa-prozesuak kudeatzeko; izan ere, izangaiei eskaintzen zaien zerbitzua hobetu egiten da, izapide presentzialak eta joan-etorriak saihestuz, eta, aldi berean, azkartasun handiagoa ematen die, izapideen arteko denborak nabarmen murrizten baititu eta, hartara, administrazio eraginkorragoa lortzen laguntzen baitu.

La utilización de los medios electrónicos se ha revelado como un instrumento eficaz en la gestión de los procesos selectivos, al mejorar el servicio prestado a las personas aspirantes evitando trámites presenciales y desplazamientos, a la vez que los dota de mayor agilidad al reducir de forma considerable los tiempos entre sus diferentes trámites, contribuyendo así a conseguir una Administración más eficiente.

Horregatik, komenigarritzat jotzen da Elduaingo Udalak deitutako hautapen prozesuetan interesa duten pertsonak bitarteko elektronikoen bidez soilik erlazionatzea, eta hori gero eta ohikoagoa da.

Por ello, se considera conveniente que en los procesos selectivos convocados por el Ayuntamiento de Elduain las personas interesadas se relacionen exclusivamente por medios electrónicos, lo cual es cada vez más habitual.

Kontuan hartu behar da Udalak, 2022ko maiatzaren 19ko 2022/054 zenbakiko Alkatetzaren ebazpenaren bidez, Elduaingo Udalaren 2022. urteko aparteko lan publikoaren eskaintza onartu duela. Eskaintza horrek abenduaren 28ko 20/2021 Legearen aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuak arautzen ditu. Lanpostu horiek ebazpen horren eranskinean daude jasota.

Ha de tenerse en cuenta que el ayuntamiento, mediante resolución de alcaldía n.º 2022/054, de 19 de mayo de 2022, ha aprobado la oferta de empleo público extraordinaria del Ayuntamiento de Elduain para el año 2022 que articula los procesos de estabilización de empleo temporal de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, cuyas plazas están recogidas en el anexo de la citada resolución.

Egonkortze-prozesu horiek artikulatzeko eta, aurrerantzean, udaleko enplegatu publiko izateko hautaketa-prozesu guztiak kudeatzeko ezarritako eskakizunak eta legezko epeak behar bezala betetzeko, beharrezkoa eta egokia da prozesu horietan bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko betebeharra arautzea.

Para el correcto cumplimiento de las exigencias y plazos legales establecidos para la articulación de los citados procesos de estabilización, y en adelante para la gestión de todos los procesos selectivos de acceso a la condición de personal empleado público del ayuntamiento, se ve necesario y oportuno la regulación de la obligación de relacionarse por medios electrónicos en dichos procesos.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen

El artículo 14 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento Administrativo Común de las



14. artikulua eta martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuaren, sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jarduketa- eta funtzionamendu-erregelamendua onartzen duenaren 3.3 artikulua ezartzen dute administrazio publikoek udal arau ezarri ahal izango dutela administrazioekin harremanak izateko betebeharra, baliabide elektronikoa soilik erabiliz, baldin eta pertsona juridikoak edo pertsona fisikoen taldeak badira, gaitasun ekonomiko edo teknikoak, dedikazio profesionala edo beste arrazoi batzuk direla medio, behar diren baliabide teknologikoak eskura dituztela egiaztatzen bada.

Horretarako, eta toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 4.1 artikuluko a) letran eta 25.2 artikuluko ñ) idatz-zatian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeko 17.1.30) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako ordenantza honen onarpena izapidatzen da, A1, A2, B, C1, C2 eta LT klasifikazioko talde eta azpitaldeetan sartzeko hautaketa-prozesuetan bitarteko elektronikoen bidez erlazionatzeko betebeharra ezartzen duena, izan ere, horiek eskuratzeko eskatzen den titulazioa kontuan hartuta, esan daiteke baliabide elektronikoa erabiltzeko gaitasun tekniko nahikoa dutela, baliabide horiek pixkanaka ezartzeak aukera eman baitu baliabide horiek modu orokorrean erabiltzeko, bai bizitza akademikoan, bai gainerako eremu pertsonaletan. Horrela, baliabide horiek eskuratu eta eskuragarri daudela egiaztatzen da.

1. artikulua. Bitarteko elektronikoen bidez harremanak izatera behartuta dauden pertsonak.

1. Elduaingo Udalak deitzen dituen A1, A2, B, C1, C2 eta LT klasifikazioko talde eta azpitaldeetan sartzeko hautapen prozesuetan parte hartzen duten pertsonak bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jarri beharko dira.

Hautaketa-prozesuen deialdiak eta horiek arautzen dituzten oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orriko (<https://www.elduain.eus>)

Administraciones Públicas y el artículo 3.3 del Real Decreto 203/2021, de 30 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de actuación y funcionamiento del sector público por medios electrónicos, establecen que las administraciones públicas reglamentariamente podrán establecer la obligación de relacionarse con ellas utilizando sólo medios electrónicos cuando se trate de personas jurídicas o colectivos de personas físicas que por razón de su capacidad económica o técnica, dedicación profesional u otros motivos quede acreditado que tienen acceso y disponibilidad de los medios tecnológicos precisos.

Con este propósito, y de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 4.1 letra a) y 25.2 letra ñ) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases de régimen local, y en el artículo 17.1.30) de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, se tramita la aprobación de la presente ordenanza, por la que se establece la obligación de relacionarse por medios electrónicos en los procesos selectivos para el acceso a los grupos y subgrupos de clasificación A1, A2, B, C1, C2 y AP, ya que teniendo en cuenta la titulación exigida para el acceso a los mismos, cabe afirmar que tienen la suficiente capacidad técnica en la utilización de medios electrónicos, en la medida en que la implantación paulatina de éstos ha posibilitado su empleo generalizado, tanto a lo largo de la vida académica como en el resto de ámbitos personales, resultando acreditado de este modo el acceso y disponibilidad de los mismos.

Artículo 1. Personas obligadas a relacionarse por medios electrónicos.

1. Se establece la obligación de relacionarse por medios electrónicos a aquellas personas que tomen parte en los procesos selectivos para el acceso a los grupos y subgrupos A1, A2, B, C1, C2 y AP que convoque el Ayuntamiento de Elduain.

Las convocatorias de los procesos selectivos y las bases que las regulen se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios de la



iragarki-taulan argitaratuko dira.

2. Hautapen prozesuetan parte hartzen dutenek ondoko tramite hauek egin beharko dituzte bitarteko elektronikoen bidez:

a) Parte hartzeko eskabidea eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak aurkeztea, deialdiaren oinarrietan aurreikusitakoarekin bat. Halaber, azterketa tasa edo eskubideak baliabide elektronikoen bidez ordainduko dira.

b) Akatsak edo hutsegiteak zuzentzea.

c) Merezimenduak alegatzea eta egiaztatzea.

d) Destinoa aukeratzea.

e) Parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.

f) Errekurtsoak eta erreklamazioak aurkeztea, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

g) Hautaketa-prozesuarekin zerikusia duen beste edozein izapide edo dokumentazio aurkeztea.

3. Elduaingo Udalak edo, hala badagokio, Epaimahai Kalifikatzaileak beretzat gordetzen du jatorrizko agiriak eskatzeko aukera, bai eta, zalantzarik izanez gero, merezimenduak behar bezala baloratzeko eta/edo baldintzak betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiri osagarriak ere.

4. 2. paragrafoan adierazitako izapideak egiteko, Elduaingo Udalaren web orrian sartu behar da.

5. 2. atalean adierazitako izapideak aurkeztu eta egiteko, ordenantza honen xede diren hautaketa-prozesuetan parte hartu nahi duten pertsonen

2023ko otsailaren 7ko Ezohiko Bilkura

página web del ayuntamiento
(<https://www.elduain.eus>).

2. Las personas que tomen parte en los procesos selectivos estarán obligadas a realizar por medios electrónicos los siguientes trámites:

a) La presentación de la solicitud de participación, así como de la documentación que se deba acompañar a la misma, de acuerdo con lo previsto en las bases de la respectiva convocatoria. Asimismo, el pago de la tasa o derechos de examen se realizará por medios electrónicos.

b) La subsanación de defectos u omisiones.

c) La alegación y acreditación de méritos.

d) La elección de destino.

e) La presentación de la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos de participación.

f) La interposición de recursos y reclamaciones, de acuerdo con lo previsto en las bases de la respectiva convocatoria.

g) Cualquier otro trámite o presentación de documentación relacionado con el proceso selectivo.

3. El Ayuntamiento de Elduain o, en su caso, el Tribunal Calificador, se reserva la posibilidad de solicitar la documentación original, así como, en casos de duda, cualquier documentación complementaria que considere necesaria para la correcta valoración de los méritos y/o el cumplimiento de los requisitos.

4. La realización de los trámites indicados en el apartado 2 implica el acceso a la página web del Ayuntamiento de Elduain.

5. Para la presentación y realización de los trámites indicados en el apartado 2, las personas interesadas en tomar parte en los procesos selectivos objeto de



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

Elduaingo Udalak onartutako identifikazio- eta sinadura-sistema elektronikoak erabili ahal izango dituzte.

2. artikulua. Elduaingo Udaleko enplegatu publiko izateko hautapen prozesuetako tramiteak bitarteko elektronikoen bidez egiteko baldintza orokorrak.

1. 1.2 artikuluan aipatzen diren tramiteak, bitarteko elektronikoen bidez egiteko, deialdiaren oinarrietan ezarritakoari jarraituko zaio. Bereziki, eskaerak aurkezteko epea haietan ezartzen dena izanen da.

2. Bitartekoen erabilerari dagokionez, honako hauek aplikatuko dira: urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa; martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretua, sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jarduketa- eta funtzionamendu-erregelamendua onartzen duena; eta ordenantza hau.

3. Elduaingo Udalak harreman telematikoak izateko herritarren eskura jartzen dituen euskarrietan zein euskarri horietan argitaratzen diren komunikazio eta agirietan bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko du, herritarren hizkuntza hautua errespetatzeko.

3. artikulua.- Elduaingo Udaleko enplegatu publiko izateko hautapen prozesuetako tramiteak bitarteko elektronikoen bidez egiteko prozedura.

1. Parte hartzeko eskabidea eta horrekin batera aurkeztu beharreko agiriak, tasa edo azterketa eskubideak barne, baliabide elektronikoen bidez aurkezteko, interesdunek prozedura honi jarraitu beharko diote:

2023ko otsailaren 7ko Ezohiko Bilkura

la presente ordenanza podrán utilizar los sistemas de identificación y firma electrónica admitidos por el Ayuntamiento de Elduain.

Artículo 2. Condiciones generales para la realización por medios electrónicos de los trámites de los procesos selectivos para el acceso a la condición de personal empleado público del Ayuntamiento de Elduain.

1. La realización por medios electrónicos de los trámites indicados en el artículo 1.2 se efectuará de acuerdo con lo establecido en las bases reguladoras de la respectiva convocatoria. En particular, el plazo de presentación será el que se establezca en las mismas.

2. Con respecto a la utilización de los medios será de aplicación la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común, el Real Decreto 203/2021, de 30 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de actuación y funcionamiento del sector público por medios electrónicos, y la presente ordenanza.

3. El Ayuntamiento de Elduain garantizará el uso de las dos lenguas oficiales en los soportes de relación telemática que pone a disposición de la ciudadanía y en las comunicaciones y documentos que en ellos se publiquen, con el fin de respetar la opción lingüística de la ciudadanía.

Artículo 3. Procedimiento para la realización por medios electrónicos de los trámites de los procesos selectivos para el acceso a la condición de personal empleado público del Ayuntamiento de Elduain.

1. Para la presentación por medios electrónicos de la solicitud de participación, así como de la documentación que se deba acompañar a la misma, incluido el pago de la tasa o derechos de examen, las personas interesadas deberán seguir el siguiente procedimiento:



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

a) Elduaingo Udalaren egoitza elektronikoan dagoen lan eskaintzak atalera sartu eta zein deialditan parte hartu nahi den aukeratu.

b) Eskabidea aurkezteko prestatu den inprimaki elektronikora sartu eta bertan adierazten diren jarraibideei jarraitu.

c) Identifikazio eta sinadura elektronikorako, Elduaingo Udalak onartutako sistemak erabiliko dira, 1.5 artikuluan aipatu direnak.

2. Merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko, bai eta destinoak aukeratzeko ere, interesdunek aurreko atalean adierazitako prozedurari jarraituko diote, baina parte hartzen ari diren deialdian horretarako prestatutako inprimaki elektronikora joko dute.

3. Elduaingo Udalari egotz dakioken gorabehera tekniko batek 1. eta 2. idatz-zatietan adierazitako inprimaki elektronikoak eskuratzea eragozten badu, izapide horiek erregistro elektronikorekin bidez egin ahal izango dira.

4. Igorri beharreko dokumentazioa onetsitako formatuak eta tamaina-mugak edo egoitza elektronikoan unean-unean adierazten den beste edozein motatakoak izan beharko ditu.

5. Transmisio elektronikoan akats formalak antzemanaz gero, sistemak berak jakinaraziko dio interesdunari, dagozkion errore-mezuen bidez, zuzendu ditzan, hala badagokio.

6. Izapidea onartzen bada, sistemak pantailan itzuliko du eta/edo aurkezpen-egiaztagiria emango du, gorde dadin.

4. artikulua. Nahitaezko komunikazio eta jakinarazpen elektronikoak.

2023ko otsailaren 7ko Ezohiko Bilkura

a) Acceder al apartado relativo a ofertas de empleo ubicado en la sede electrónica del Ayuntamiento de Elduain y seleccionar la convocatoria en la que se quiera participar.

b) Acceder al formulario electrónico elaborado para la presentación de la solicitud y seguir las instrucciones que se señalan en el mismo.

c) Para la identificación y firma electrónica se utilizarán los sistemas admitidos por el Ayuntamiento de Elduain a los que se ha hecho referencia en el artículo 1.5.

2. Para la alegación y acreditación de méritos, así como para la elección de destinos, las personas interesadas seguirán el procedimiento indicado en el apartado anterior, si bien accederán al formulario electrónico elaborado a tal efecto, incluido en la convocatoria en la que estén participando.

3. Cuando una incidencia técnica imputable al Ayuntamiento de Elduain imposibilite el acceso a los formularios electrónicos elaborados al efecto y señalados en los apartados 1 y 2, se podrán realizar dichos trámites mediante el registro electrónico.

4. La documentación a remitir deberá ajustarse a los formatos aprobados y limitaciones de tamaño o de cualquier otra índole que en cada momento se indique en la sede electrónica.

5. En aquellos casos en que se detecten deficiencias de tipo formal en la transmisión electrónica, dicha circunstancia se pondrá en conocimiento de la persona interesada por el propio sistema mediante los correspondientes mensajes de error para que proceda, en su caso, a su subsanación.

6. Si el trámite es aceptado, el sistema devolverá en pantalla y/o facilitará un justificante de presentación para su conservación.

Artículo 4. Comunicaciones y notificaciones electrónicas obligatorias.



1. 1. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren pertsonen bitarteko elektronikoen bidez jaso beharko dituzte ordenantza honen xede diren eta argitaratzen ez diren hautapen prozesuetatik sortzen diren komunikazio eta jakinarazpenak.

2. Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, Elduaingo Udalak edo, hala badagokio, Epaimahai Kalifikatzaileak komunikazioak eta jakinarazpenak bitarteko ez-elektronikoen bidez egin ahal izango ditu kasu hauetan:

a) Interesdunak Udaletxean bere kabuz agertu eta une horretan bere jakinarazpen pertsonala eskatzen duenean egiten denean jakinarazpena.

b) Bitarteko elektronikoen bidezko komunikazioak edo jakinarazpenak administrazio-jardunaren eraginkortasuna ziurtatu ezin duenean.

3. Komunikazioa edo jakinarazpena bitarteko elektronikoa edo ez-elektronikoen bidez egiten bada, ondorio guztiak egintzat joko dira behar bezala egindako lehen komunikazio edo jakinarazpenetik aurrera.

4. Udalak egindako jakinarazpen elektronikoetarako sarbidea Udalaren egoitza elektronikotik egingo da, eta interesdunak sinadura elektronikoaren bidez jakinarazitako egintzaren edukia eskuratzen duen unean egindakotzat joko dira, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43.2 artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoaren kalterik gabe.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen xedapen gehigarria.

Hautapen prozesuaren ezaugarriak kontuan hartuta, salbuespen gisa, deialdiaren oinarrietan 1.2

2023ko otsailaren 7ko Ezohiko Bilkura

1. Las personas a las que se refiere el apartado 2 del artículo 1 estarán obligadas a recibir por medios electrónicos las comunicaciones y notificaciones que se deriven de los procesos selectivos objeto de esta ordenanza que no sean objeto de publicación.

2. No obstante lo establecido en el apartado anterior, el Ayuntamiento de Elduaín o, en su caso, el Tribunal Calificador, podrá practicar las comunicaciones y notificaciones por los medios no electrónicos en los siguientes supuestos:

a) Cuando la notificación se realice con ocasión de la comparecencia espontánea de la persona interesada en las dependencias del ayuntamiento y solicite la comunicación o notificación personal en ese momento.

b) Cuando la comunicación o notificación por medios electrónicos no pueda asegurar la eficacia de la actuación administrativa.

3. En los supuestos en los que se llegara a practicar la comunicación o notificación por medios electrónicos y no electrónicos, se entenderán producidos todos los efectos a partir de la primera comunicación o notificación correctamente efectuada.

4. El acceso a las notificaciones electrónicas practicadas por el Ayuntamiento se efectuará desde la sede electrónica del ayuntamiento y se entenderán practicadas en el momento en que la persona interesada acceda al contenido del acto notificado mediante su firma electrónica, sin perjuicio de lo establecido en el párrafo segundo del artículo 43.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Disposición adicional primera.

Atendiendo a las características del proceso selectivo, excepcionalmente, las bases de la



artikuluaren adierazitako tramiteak paperean egiteko aukera aurreikusi ahal izanen da.

Bigarren xedapen gehigarria.

Alkateak, langileen arloan eskumena duenak erabaki ahal izango du ordezkoko paperean betetzea, behar bezala arrazoitutako salbuespenezko inguruabarrak direla-eta, edo behar bezala frogatutako gorabehera tekniko batek sistemen ohiko funtzionamendua epearen barruan eragozten duenean.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehen xedapen iragankorra.

Elduaingo Udalak administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasun osoa bermatu ezin duen bitartean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen III. tituluko IV. kapituluaren aurreikusitako moduan, datuen bitartekotzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuetan kontsulta eginez, parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak paperezko euskarrian aurkeztuko dira.

Bigarren xedapen iragankorra.

Ordenantza honetan jasotakoak, ordenantza hau indarrean sartu ondoren Elduaingo Udaleko enplegatu publiko izateko deitzen diren hautapen prozesuetan aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetan lehena.

Elduaingo Udaleko Alkateak behar diren ebazpen eta jarraibideak eman ahal izango ditu ordenantza hau

2023ko otsailaren 7ko Ezohiko Bilkura

respectiva convocatoria podrán prever de forma adicional la posibilidad de realizar los trámites indicados en el artículo 1.2 en soporte papel.

Disposición adicional segunda.

El Alcalde o alcaldesa competente en materia de personal podrá acordar la cumplimentación sustitutiva en papel por circunstancias excepcionales debidamente motivadas o cuando una incidencia técnica debidamente acreditada haya imposibilitado el funcionamiento ordinario de los sistemas en plazo.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Disposición transitoria primera.

En tanto el Ayuntamiento de Elduain no pueda garantizar la plena interoperabilidad entre las Administraciones Públicas en los términos previstos en el capítulo IV del título III de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, mediante la consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, la presentación de la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos de participación se llevará a cabo en formato papel de acuerdo con lo previsto en las bases de la respectiva convocatoria.

Disposición transitoria segunda.

Las previsiones de esta ordenanza serán de aplicación a los procesos selectivos de acceso a la condición de personal empleado público del Ayuntamiento de Elduain que se convoquen con posterioridad a la entrada en vigor de la misma.

DISPOSICIONES FINALES

Disposición final primera.

El Alcalde del Ayuntamiento de Elduain podrá dictar cuantas resoluciones e instrucciones fueran precisas



Elduaingo Udala
Gipuzkoa

aplikatu eta garatzeko.

Azken xedapenetan bigarrena.

Ordenantza honek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

2023ko otsailaren 7ko Ezohiko Bilkura

en aplicación y desarrollo de la presente ordenanza.

Disposición final segunda.

La presente ordenanza entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Elduain, 2023ko otsailaren 7an.